

erein *karria*

Argitaletxearen berriak 2002ko abendua

Tolosa Etorbidea 107 - 20018 DONOSTIA. Tel.: 943 21 82 11 - 21 83 00 Fax: 943 21 83 11
www.erein.com erein@erein.com

Doako alea, 9. zenbakia



Istorio horiek, gauero kontatu, kateatu eta txirikordatu zituen, eta gertakariak erakargarrien zeudenean, orduantxe egingo zuen etena. Biharamunean jarraitzeko eta, hartara, bizia beste egun batez salbatzeko. Ipuinak biziaren truke.

Patxi Zubizarreta



Ahets batean sartuta bizi nahi nuke, **Matrix** bezalako amets batean bizitzatik ihes egin ahal izateko.



“Hasieran, epikotasunez beterik zirudien istorio bateko pertsonaien epikotasun eza. Distirarik gabe hornitutako hizketaldi sinetsgarriak, zeinetan bizitzak berak hitz egiten duen, gizakion harabotsaren beharrik gabe. Liburu zinematografikoa da zeharo, eta honen planoetan zuzendariak egiten duen olgeta saioa egundukoa da. Paisaia ñabardura ugariren bitartez deskribatzen du...”

Lander Garro (Gara)

Egungo gazte euskaldunek hurbil-hurbilekoa sentituko dute Antton Olanoren itzulpena.

Ahalegin izugarria egin du Gemmak gaurko gazteen hizketa bizia jasotzen, eta beste horrenbeste esan daiteke Antton Olanok euskaraz paraturiko bertsioaren gainean.

Karlos del Olmo (Egunkaria)



Ipurbeltz 1977 - 2002
Orr: 120
Urtea: 2002
ISBN: 84-9746-069-3
Salneurria: 12 €

IPURBELTZ

25 URTE. ANTOLOGIA 1977 - 2002

Liburu honek Ipurbeltzek betetzen dituen 25 urte hauen erakusgarrizko antologia bat izan nahi du. Ipurbeltzek atera dituen 300 zenbakietan argitaratu duten 30 marrazkilariren lanaren bilduma.

Narratiba



Larrepetit
Pello Lizarralde
Orr: 128
Urtea: 2002
ISBN: 84-9746-017-0
Salneurria: 11,55 €

Ihesaren pausora errenditutako bizitza taupadak.

Abel, Joxe eta Lainez dira nobela honetako hiru pertsonaiak. Abel gaztea da eta Joxe edadetuagoa eta hitz gutxikoa. Gazte urduria bata, eta aurpegi-ilun eta eskarmentu handikoa bestea. Biak dira iheslariak. Preso zeuden eta kalabozoko ataritik ihes egin dute.



Galtzontziloak autobusean zintzilik
Aritz Gorrotxategi
Orr: 124
Urtea: 2002
ISBN: 84-9746-064-2
Salneurria: 11,55 €

Zergatik ez dugu bidaiatuko elkarrekin Tunezera?

Kurtso amaierako bidaia batean Tuneza jauzi egin zuten hiru lagun euskaldunen eleberrian emandako kronika jasotzen du narrazio honek. Langabezia zain zuten itzuleran, eta nolabait, bazekiten sei egun haiek zirela tren berri bat hartu aurreko azken geltokia. Handik itzuli ziren pertsonak ez ziren, jada, hasierako berdinak.



Hamar manamenduak
Xabier Etxaniz Rojo
Orr: 144
Urtea: 2002
ISBN: 84-9746-072-3
Salneurria: 12 €

Manamenduak hankazgora jarritz, norberena ez besteren emazteak desiratu eta maitatuko ditugu.

“Prostitutekin harremanetan hasi zenez geroztik egin ohi duen gauza da iragarkiak azpimarratzearena. Sei iragarki azpimarratu ditu. Sei horien artean badago bat aspaldiko partez begiz jota daukana. Iragarkiak zera dio: Susi. Heldua. Dibortziatua. Goza nazazu senarrak gozaten jakin ez zuen bezala. Apartamentu pribatua. Soilik arratsaldez.

Gazte literatura eta gazteen mundua



Sexuaz jakin nahi zenuen eta galdetzeak ematen zizun ia guztia. Julia kokoteraino dago hilekoaren tripako minekin, eta behin baino gehiagotan desiratu izan du mutil bihurtzea.



Edariaren menpe bizi den Roland gazteak porrot egingo du bizitzan. Huts egingo du eskolan, huts egingo du maitearekin, huts egingo du gurasoen etxean. Hain gazte, 15 urte besterik ez, eta ezin edan gabe pausorik egin.



Gogorra da alkoholak eta drogek gure gizartean hartu duten nagusitasuna. Guraso bananduak, seme-alaba noragabetuak eta depresioa dira, besteak beste, ondorio.



Gero eta ugariagoa da norbere pisuari begira bizi den jendea; eta, horien artean, gero eta gehiago dira gazteak. Arazo larria bihurtu da jada anorexia: hamabost eta hamasei urtetako bi nesketatik bat bere pisuarekin disgustura dago.



Haurdun egon eta umea izatea erabaki duen Deborah-ren errebeldia kontatzen zaigu liburuan. Eskola, familia eta lagunengainetik, Deborah-k aurrera eramango du bere borroka.

Patxi Zubizarreta Elena Odriozola

USOA

Sentiberatasun handiko sail berria gaztetxoentzat.



Usoa bere lehen kanpamendura doa, Irati lagun minarekin. Suaren inguruan eseri nahi dute, eta neska-mutil gehiago ezagutu, eta, agian, musuren bat eman edo jaso. Aspaldiko lapur batzuen altxorra ere aurkitu nahi lukete. Baina ezin dute inondik ere imajinatu gauza horiek guztiak baino askoz gehiago dituztela zain (pertsonaia harrigarriak, desagertak, lapurretak), eta lehen kanpamendu hori ezin izango dutela inoiz ahantzi.

Irati, Usoaren lagun mina, ez da betiko Irati. Arraro baino arrarago dabil azken boladan. Ikasturte hasiera ere oso gorabeheratsua gertatu zaie. Horregatik guztiatik erabaki du Usoak, Manexekin batera, Irati zelatatzea: bitxi batzuekin zer egiten duen jakin nahi dute, edo zer gertatzen zaien haren gurasoei, edota, azkenik, zertan dabilen mutil ezezagun batekin... Eta hori guztia jakin bitartean, ustekabean, Manex Usoaren lagun mina bilakatuko da.



PERZEBAL 12-16 urte

Henning Mankell-en narrazio poetiko sakon eta hunkigarri hauek mutiko gazte baten bakardadea kontatzen dute; amak etxea utzi eta itsasaldeko herri batera alde egin zuen. Harrezkero Joel aitarekin bizi da; baina aita lanean dago beti, lagun berri bat ere egin du azkenaldi honetan, eta horrek areagotu egin du mutilaren bakardade sentipena. Baina bizitzarako gogortu beharra dauka Joelek... Gauzak horrela, izarretara bidean zihoan txakurra ikusten du leihoaz bestaldean. Urrutiko itsaserrira al zihoan txakurra? Egunen batean, handiago denean, hara joan nahiko luke berak ere...

Beste mundu batera garamatza Gemma Lluhek **MATRIX** filmearen estetika eta irudimen narratiboarekin.



Izarretara bidean zihoan txakurra
Henning Mankell
Orr: 208
Urtea: 2001
ISBN: 84-7568-584-6



Itzalak luzatu egiten dira ilunabarrean
Henning Mankell
Orr: 216
Urtea: 2002
ISBN: 84-9746-073-1



</jokoa.com>
Gemma Lluh
Orr: 178
Urtea: 2002
ISBN: 84-9746-065-0



GURE KLASIKOAK

GURE KLASIKOAK sailaren helburua hauxe izan da: Mendebaldeko tradizioan funtsezko eragina izan duten liburuak euskaraz eta modu irakurteraz batean eskaintzea. Tradizioa esaten dudanean mendebaldarron imaginazio edo imaginarioaren iturri nagusiez ari naiz. Esan beharrik ere ez dago Homeroren *Iliadak* eta *Odiseak* Mendebaldeko kulturarako izan duten eragin itzela. Gure kulturaren aurreneko zutabe sendoak ditugu. Horien artean, baina, *Odisea* da gurena. *Odiseari* jarraituz idatzi dira tragedia klasiko zaharrak, Virgilioren Eneida, azken hori gabe ezin idatzi Dantek berea, eta abar luzea.

Ovidioren *Metamorfosiak*, berriz, egile beraren *Ars Amandi*-rekin batera Europarron imaginarioaren "bibli txikia" izan zen Bepizkunde garaia arte. Eta handik gururaino etorri ziren Ikaroren, Dedaloren, Narzisoren eta beste askoren istorio mitikoak.

Testamentu Zaharreko istorioei buruz, berriz, zer erantsiko? Kain eta Abel eta Babelgo dorrea, Sanson eta Dabid, Judit eta Jonas... Aipatu ditugun tradizio horietan guztietan Mendebaldeko gure kulturaren oinarriak finkatzen ari gara.

Mila eta bat gau arabiarak zoragarria: noizbait bakarren batek denak irakurriko balitu, hil egingo litzateke.




Israelgo herriaren "historia" kontatzea du helburu liburuak. Haren historia kontatzeari ekin aurretik, ordea, munduaren eta gizadi osoaren sorrera kontatzen digu, labur, atariko gisa; eta baita, horren ondoren, antzinako gertakari harrigarri batzuk ere. Herri askoren oroiman kolektiboan gordetako tradizio zaharrak jasotzea dira testu horietan: Edengo baratzarena (Paradisua), Kain eta Abel, Uholde handia (Noeren historia), Babelgo dorrea... Geroago datoz Abrahenganandik hasi eta Moisesenganaino doazen istorioak: Egiptoko izurriak, Itsaso Gorriko pasadizoa eta desertualdi luzea. Agindutako Lurraren atarian bukatuoko da kontakizuna.



Liburuki hau bera ere bi zatitan banatu dugu: Historiako kontakizunak, batetik, eta Narrazioak, bestetik. Jakina denez, Testamentu Zaharreko liburu batzuek Israelen historia 'ofizial' kontatzea dute helburu. Horietatik hartu ditugu lehen zatian ageri diren kontakizun ezagunak: Josueren gorabeherak, Sansonenak, Dabidenak e. a. Badira, ordea, historia 'ofizial' horretatik bereiz sortu ziren narrazioak eta literatur emaitza paregabeak direnak. Gaur egun aipatzen diren generoekin alderatuta, narrazio laburrak direla esango genuke. Horrelakoak dira bigarren zatian bildu ditugunak: Rut, Tobias, Judit...



Ipuinak ipuinen ondotik, beraz, ipuinak ipuinen barnean. Eta noizbait bakarren batek denak irakurriko balitu, hil egingo litzateke. Hala ohartarazten du liburu honek ezkatzen duen mehatxuak. Xerazade ere, istorio hauen guztien narratzailea, hiltzeko arriskuan egon zen liburuaren kontaketa iraun zuen bien bitartez guztian, eta soil-soilik ipuinen bitartez lortu zuen bere bizitza salbatzea. Istorio horiek gauero kontatu, kateatu eta txirikordatu zituen, eta gertakariak erakargarrien zeudenean, orduantxe egingo zuen etena, biharamunean jarraitzeko eta, hartara, bizia beste egun batez salbatzeko. Ipuinak biziaren truke.



EUSKAL HERRIKO LEIENDAK LEYENDAS DE EUSKAL HERRIA



E. Moreno Esquibel

Toti Martínez de Lezea

Gure arbasoek asmaturiko
mitologia zaharra.

*Un respetuoso homenaje a
la obra del maestro
Barandiarán.*



EREIN-EUSKADIKO KUTXA Narratiba Saria "DONOSTIA, OPERA PRIMA" Saria Donostia, 2003

Erein argitaletxeak EREIN-EUSKADIKO KUTXA eta
"DONOSTIA, OPERA PRIMA" Narratiba Sariak antolatu ditu,
euskaraz idatzitako eleberriak sustatzeko asmoz, Euskadiko Kutxa eta
Donostiako Udalaren babesarekin. SARIA 12.000 €